


 BOOKTEGI

Poesiaren  
xendrak  
Europar  
barna

Fito Rodriguez



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

FITO RODRIGUEZ

Poesiaren xendrak  
European barna

# AURKIBIDEA

Sarrera

Erdi aroa

Emakumeen kanta

Txatillongo Gautier

Ventadorngo Bernart

Lorrisgo Guillaume eta Frantziako Roman De La Rose deritzana

Portugalgo Denis

Gaztelaniazko erromantzea

Dante Alighieri

Francesco Petrarca

Ausiás March

Francois Villon

Jorge Manrique

Milia Lasturkoren eresia

Errodrigo Zaratekoaren eresia

Martin Bañezen eresia (1464)

Arrasateko erreketeta (1456)

Igorren gerra

Bandadrapa

Arturo erregearen kondaira

## Sarrera

Literaturak, eta poesiak bereziki, hizkuntza zurruna gainditzen du mintzaira iradokitzaile berriak sortuz. Hauxe da haren ekarpena. Bada, metaforaren miraria: lotura denaren hizkuntza eratzen duen logo komunean deskribapenetik ihes egitea, eta artearen lana kontzeptuaren lanera hurbiltzea, beraz. Horixe dugu literatura eta, zehazkiago, poesiaren kausa.

Idazle poetaren ekarpena ez da, horrenbestez, edukirik gabeko arrazoibide logikoa soilik ezta irudikapen moduko irudimenik bakarrik ere. Gogoeta literarioa giza gaitasun guztien (sentsibilitatea, irudimena, ulermena eta arrazoia) inplikazioa benetakoa da hizkuntza egintza batean laburbildurik, eta norberaren objektibotasunaren bila aritzea da literatura egintza horren zeregina. Ekintza hori, bada, poesia idatzia bera baino ez da, non hizkuntzak bere burua aurkitzen baitu eta, non giza gaitasunek indarra eta berrikuntza ematen dioten esparru edo irakasgai gisa.

Samuel Beckettek idatzitako *Proust* testuan, esaterako, bere nitasunaz aritzeko bidea erakutsi zuen eta, halaber, literaturaren bidezko ikerketa ere zertan datzan erakutsi zigun, zeren idazketa, horretarako bidea besterik ez da. Hori dela eta, 1938an kaleratutako *Murphy* eleberrian Spinozaren itzala nabarmena da baita ezagutzarako adierazpen umoretsuaren aldarria ere.

Beckettek *Murphy* ingelesez idatzi zuen baina *Proust*, eta gainerako testuak, frantsesez.

Goethek literatura unibertsalaren kontzeptua sortu zuen (*Weltliteratur*)... Alemaniar poeta handiena, ikuspegi aski frantses batetik abiatu zen, nahiz eta eskatzen zuen literatura-iraultza Frantziako Iraultzak baino dezente lehenago proposatu. Herderengandik ikasi zuen ez zegoela eredu unibertsalik, herri bakoitzak bere hizkuntza duela; idazleak esperientzia eta bizipenak bere herri kulturari egokitzen dizkiola.

Goethek adierazpenaren naturaltasuna bilatzen zuen, bere gogoetara egokitua, filologiaren gaineratik nahiz eta anakronismoetan erori... Hizkuntzaren eta nortasun kulturalaren arteko erlazioari buruzko diskurtsoa hasi zuen biak batera doazelako bizitzan. Alde batetik hizkuntzak norberaren barne bizitza adierazten du, eta Goetheren proiektua literatura izan arren, berean literatura nazionala eta literatura unibertsala ez dira bateraezinak. Izan ere, literatura unibertsala ez da literatura-proiektu berezi eta espezifiketatik sortzen dena baino ezer gehiagorik.

Saramagok "idazlea literatura nazionala sortzen duela eta, itzultzaileak, berriz, literatura unibertsala egiten duela" zioen. Ez nago ados.

Ikus dezagun Aharon Appelfeldek horri buruz dioena: "Hebreera zailtasunez ikasi nuen. Hizkuntza zaila, zurruna eta aszetikoa da. Isiltasunean oinarritzen da, jakintza babesten duen harresitza hartzen baitu isilunea. Hebreeraz pentsatzen, hitzak ekonomizatzen, erabilitako adjektiboak neurtzen... irakatsi zidan hizkuntza horrek, ikasi izango ez banuen ez nuelako nire literatura-bidea aurkituko". Izan ere, literaturak hizkuntza bat aukeratzea dakar, berez. Horixe egin zuten Kafkak, Pessoa, Beckettak edo Goethek. Kunderak, Cioranek edo Kallifatidesek...

Esan daiteke, ordea, hainbeste hizkuntzen artean, europar literatura edo Europako poesiaren bat ba ote dagoen?

Baietz uste dut, izan ere, hizkuntza bakoitzetik metaforaren miraria gauzatzen denean, lotura denaren hizkuntza bakoitzean eratzen delarik, logo komun europarra baitago egon, partekatutako kultura komuna, alegia, literatura garatzeko erabili den hizkuntza ezberdin bakoitzaren arabera adierazia eta, halaber, norberaren hizkuntzaren arabera ulerturik.

Hemen duzue, bada, horretaz guztiaz jabetzeko aukera ...

## Erdi Aroa

Erdi Aroan aukera gutxi eman zitzaion poesia itzultzeari, baina oso hedatua izan zen hizkuntza batetik bestera istorioak zabaltzea eta, halaber, birsortzea ere. Kasu askotan, jatorrizko bertsoarekin nahikoa zen. Gesta kantu batean, abeslari probentzalen bertsoen edo monologo juglareskoen erritmoa (batez ere dantzara bideratutako piezez baina ez hitzez hitz errepikatzeagatik), jatorrizko letra bezain garrantzitsuak edo garrantzitsuagoak ziren erabilitako doinuak, musikan, exekuzioaren kalitatean eta mimikan. Horra hor, esaterako, rockaren zale gehienek italiera eta ingeleza ez dutela ulertzen ziurtatzen duen hastapena.

Baina horrela gertatzen ez zenean, Erdi Aroak egokitzapenera jotzen zuen, hots, ez itzulpenera. Karlomagnoaren eta Roldanen keinuek Norvegiatik Siziliara eta Galesetik Euskal Herrira jo zuten. Balada asko kontinenteko hizkuntza guztietan eta Atlantikoko uharteetan izan ziren entzunak, egokituta noski. Trobadoreen lirikak ez zuen ia itzulpenik izan baina, horien beharrik gabe, Europako poesiaren zatirik sendoena eman zuen.

Ahozkotasanak Erdi Aroko poesian agindu ohi du: abestua, dantzatua, irudikatua baita irakurria ere, irakurketa beti ozenki egiten zelako, ondo ahoskatuz. Ahozko izaera indartsua duen testu bat irakurketa hutsa baino praktika aktiboagoa da, irakurlea transmisorea baino gehiago egile-kide bilakatzen baita.

Ikuspegi honek, garai hartan idazlan beraren kopiek agertu ohi zituzten desberdintasun ugariak azaltzeaz gain, Erdi Aroko poesiaren ezaugarri orokorrenetako bat ere bada, ezinbestean, erabilera-balioa izateak, bizitza ez-artistikoaren ordena batean betetzen duen funtzioa nagusitzen baita.

Herri xeheko kantariak, juglareak, emakumeak eta apaizak bat badatoz poesia bere baitan ez dela helburua baizik eta giza praktika hutsa, beste helburu batzuen zerbitzura dagoen bitartekoa eta, maiz, izugarrizko errealismoarekin markatzen dute testuak, tokian tokiko egokitzapenak emandako gertutasunez poesiaren unerik onenak lortuz.

## Emakumeen kanta

XI. mendeko kanta hau izan daiteke gure poesiaren aintzindaria. Europar hizkuntzetan 800. urtean dokumentatu diren poesiak, “Wulf eta Eadwacer” izeneko hau kasu, anonimoak izan arren, emakumezkoek eginda direla ez dago dudarik. Hauetan leloa errepikatzen da (*Nola artatu behar dituzte bidetik badatozen gerlariak?*) eta hitzek balizko doinuekin daukaten lotura azalarazten zaigu. Hala gaiaz nola haiek garatzeko moduek emakumezkoek sortutako poesiaren berri ematen digute. Gure egungo literatura oinarritzat har daitezkeenak, bada.

Elizaren arrastorik ez eta kultismo greko latinoen landa, mota honetako ekarpen lirikoek Europako herri poesiaren abiapuntutzat har dezakegu.

*Gudian sartzea bezala izango da nire herriarentzat:*

*Nola artatu behar dituzte bidetik badatozen gerlariak?*

*Gureak, zer-nolako zorte desberdinak!*

*Bera Wulf uhartean dago ni beste batean nagoen bitartean.*

*Gotor sendoa da, putzuz inguratua.*

*Uharte horretako gizonak gerlari basatiak dira.*

*Nola artatu behar dituzte bidetik badatozen gerlariak?*

*Gureak, zer-nolako zorte desberdinak!*

*Urrutitik nire Wulfekoa doa alderraia*

*eta ni haren zain nago ia.*



# Txatillongo Gautier

Frantzia (Lille, 1135 - Reims, 1180)

Agian inork ez ditu Gautierrek baino hobeto azalduko Erdi Aroko poesia latindarraren aniztasuna eta lorpenak. Ikasle izan zen Parisen eta Reimsen, eta oso literatura-prestakuntza ona lortu zuen. Ingalaterrako Enrike II.aren zerbitzurako egon zen lanean. Txatillonon irakatsi zuen, legeak ikasi egin zituen Bolonian, Erroman paseatu Reimsera itzuli arte non amaitu zituen bere egunak bertako Guillermo artzapezpikuaren babespean. Berari eskaini zion bere lan gorena, *Alexandreida* izenekoa (1176 inguruan amaitua), non buruzagi mazedoniarraren lorpenak eredu gisa proposatzen baitira fedearen alde mundu guztia menderatu beharko lukeen Frantziako errege batentzat.

Aipatu *Alexandreidaren* milaka bertso garbien ondoan, Gautieren lirika hutsala dirudi, eta ez da horrela. Gautier maitasun-poeta fina izan zen, bere garaian modan zeuden formak eta gaiak dotoreziaz eta erraztasunez erabiltzeko gai. Baina, bestalde, borroka-poesian ez du aurkaririk ezagutzen. Jakintsu handia izanik erreferentzia klasikoekin amaitzen du ahapaldi bakoitza. Irudimen eta adimen handia izan zuen, erritmoaren eta hizkuntzaren zentzu sakonaz gain, Gautierrek edertasun eta eraginkortasunez jokatu zuen.

Batzuetan, idazteko biderik lauena hartu ohi du, trabarik gabeko salaketarena, askatasun handiz; beste batzuetan, berriz, figurazio alegorikoetara jotzen du, hitz erditan, lehenik ilunak, gero Gautierek berak argituta, ez baititu salatutakoen izenik isiltzen eta xehetasun gogorak ere ez baititu barkatzen.

Poesia mota honek badu zerbait gure bertsolariek egin duten herri-salaketatik eta gure poesia kultuaren erreferentzia eruditoetatik.

*Udaberriko urtarora itzultzen du belardiak*

*lozez apainduz lurraren zolak*

*irribarre egiten du gure nahietara:*

*olgeta guretzako maitasuna baita,*

*gosetea asetzeko jana.*

*Bi gauza kontrajarriek*

*beren ondorioen botere*

*uztak gehituz nahasten dituzte.*

*Naturak ditu asetzen*

*bere zorrak eta bat ere*

*etortzen ez direnez*

*haurdun dira geratzen*

*behar ez direnak.*

*Alai daitezen, beraz, Cupidok lagundutako guztiak.*

*Neroni, aspaldiko gaitzetik oso makal atera nintzena,*

*errua, ezkongabe maltzur batena*

*maitasunagatik nire bizitza erre zuena.*

*Alaba bat eman zidan egunari*

*deitu behar izan nion zoritxarra hari*

*Naturak utzitako zorragatik.*

*Halako batean, aita bihurtu ninduen.*

*Hala ere, umetxoa hazten da hemen,*

*aitaren etorkizuneko makulua lehen,*

*zahartzaro kexatsuan herren,*

*nire ikusmena gutxitu behin*

*eta bakardadez ibili azkenen,*

*gizon baten laguntzaren*

*baina handiagoa izanen zen*

*alabatxoa hura emanen.*

# Ventadorngo Bernart

Okzitania (1147 - 1170)

Ventadornen lana (haren jatorri xumea besterik ezjakin arren, baita Akitaniako Leonorri poema bat eskaini ziola ere) Erdi Aroan ohikoa zen ideia bati buruzkoa da, zeina praktikatu baino maizago aldarrikatu egiten zen: poesiaren perfekzioa maitasunaren perfekzioaren eta agertzen den egiaren araberakoa dela, alegia. Bere garaiko beste trobadore batzuek, Bornelhgo Giraut bezala, adibidez, beren artea formalki lantzean oinarritzen zuten ikuspegi erretorikoan. Bernartek, aldiz, estiloaren argitasunean oinarritutako kantua lantzen du, sentimenduaren adierazpenean oinarritua.

Hain zuzen, trobadore gehienek ohiko topiko eta prozedurek beti aurkitzen dute formulazio fresko bat, hain itxura naturalekoa, non Ventadornek azaldu nahi duen haragietan bizitako esperientzia-sentsazioa lortzen baitute: hura haren benetako errealitate biografiko izan ala ez, ahultasunak agertarazteak eta ahoskeraren erraztasunak, egiazkotasun-efektua sortzeaz gain, bere baitan hartzen duen zintzotasun guztia sortzen baitute.

Okzitaniar poesia europar poesia modernoaren oinarria da, herri-eritmoak eta tokian tokiko hizkuntzaren garapena bateratzen ditu.

*Denbora joan eta etorri denean,*

*egun, hilabete eta urtetan,*

*eta nik, ai, ez dakit zer esan:*

*beti ez da berdina nire aldarrean.*

*Beti da berdina, beti berdin, berez,*

*nahi dudana ez baitut maite*

*eta ez dudana nahi dut maite.*

*Berak ez du barrea galtzen,*

*eta niri dolua eta samina etortzen,*

*dadoen erdiak dituen partida batera noa*

*iruditzen zaidalako maitasun galdua*

*bitan banaturik bakerik aurkitzen ez duena.*

*Ondo madarikatu nuen, arrazoiez, neure burua,*

*jaiotzeke dagoen ezeren truk zerbitzatu zuena*

*eta berak indarrez ematen ez badu pena,*

*eromen bikoiztua izango dut azkena*

*(«eman iezaiozu zoroari: ikasiko du lema»).*

*Ez dut kantiga gehiago abestuko,*

*ezta Eblonek abestiak irakatsiko*

*nire errimek ez didate balioko,*

*ez eta nire koplak kantatzeko,*

*ez baitira nireak ezertarako*

*ez baitute ezer esango*

*ez eta ezer probestuko,*

*ez dut ikusten gehiago*

*zer izatera joango.*

*Itxuraren gozamena eta bihotz ditut larriturik.*

*Nork ikusi du inoiz bekatu aurretik penitentziarik?*

*Zenbat eta gehiago eskatu, orduan eta neke gehiagorik:*

*laster ez badu konponbiderik,*

*ihes egin beharko dut ezinbesterik.*

*Baina ona da bere erabateko askatasunak menpera nazala,*

*ezen maltzurra bada ere, aurrera egin beharko duela;*

*hara iristeko hori baita Biblian irakurtzen dela*

*egun batek beste ehunen balio duela.*

# Lorrisgo Guillaume eta Frantziako *Roman De La Rose* deritzana

(1230 inguruan)

Beta nahiz olgetaren laguntzaz, poetak gorteko maitalearen bizioen horma zeharkatzen du (Gorrotoa, Gezurra eta abar...), eta maitasunaren lorategi zoragarrian Plazera, Gozotasuna, Sotiltasuna eta beste bertute batzuk aurkitzen ditu. Narziso loreen iturrian, lorategi osoa islatzen den tokian, arrosa bat eta arrosaz janzten dena bereizten ditu; Amodioak geziekin zauritzen du, amore ematera behartzen du, eta bere legeak ematen dizkio poetari.

Xalotasunari esker, Errukia eta Lotsaren baita Jeloskortasunaren aurka arrosaren hosto eta musu bat lortu ditu poetak. Ondorioz, Jeloskorregiaren gazteluan itxiko dute, etsipenerako zaintzapean. Horixe da poetak Roman de la Roseren lau mila bertsoetan kontatzen digun ametsa. Ovidioaren tradiziozko elementuekin batera, eta Sotiltasunaren maitasunari dagozkion egoerekin batera, narrazio forma hartuko dute irakurleak Errenazimentura arte liluratu zituzten irudi alegorikoak, pertsonaiak, paisaiak eta grinak protagonista dituen *Roman de la Rose* delakoaren poema luzea.

Kaleratu zenean ez zen egilea ezagutzen, eta mende-erdi geroago argitu zuen Jean de Meun poeta ezagunak Lorrisgo Guillaume izan zela idazlea. Lorrisek ideiak naturalismo gordinarekin kontrajarri ziren, eta Jean de Meunen estilazioak bidea utzi zien diskisizio kosmologikoei, filosofiarri eta moralari.

Olerki honek hainbat bertso ditu, eta Errenazimentuaren ondorengo narratiba modernoaren ernamuina aurki dezakegu bertan. Gure literaturan antzeko adibide bat Juan Perez de Lazarragaren lana izan liteke.

*Ispiluan, eta hainbeste mila gauzaren artean,*

*arrosaz beteriko astoarroza bat ikusi nuen pakean,*

*leku ezkutuan zegoena, beste landareen inguruan.*

*Eta sortu zitzaidan hain desira handia, ezen,*

*Paviaren edo Parisen truke hartuko nuke hemen,*

*ez bailidate galaraziko leku horretara joaten.*

*Haserre horrek nitaz jabetu zen bertan,*

*beste batzuek ezagutu zuten haserrean,*

*eta hartara jarraitu zuten nire urratsetan.*

*Sinetsi egin behar didazue, hurbil nengoenean,*

*arrosen usainaren sakonenean,*

*barruan sartu zela usai gozoa nirengan,*

*eta konortea galdu nuela uste nuen.*

*Zigor baten beldurrik ez banu edukiko*

*arrosa bat nukeen gutxienez hartuko,*

*eta horrela ez nuen inoiz ahaztuko.*

*Beldurra izan nuen horrela jokatzeko,*

*eta lorategi haren jabe bihurtzeko .*

# Portugalgo Denis

(Lisboa, 1261 - Santarém, 1325)

Alfontso Jakitunaren biloba, On Denisek Erdi Aroko poesiaren tradizio berezietako bati segida eman zion: lirika galiziar-portugesara deritzanari, Penintsula iberiar osoko trobadoreek eta, batez ere, galegoak, astureak eta leondarrek landutako ereduak. Haren inguruan lehen lehenok errimatzaile askok bat egin bazuten ere, hark sortutako ekoizpena bera, ia ehun eta piko olerki luze dituenak, beste edozeinena baino zabalagoa da eta berak oinarritutako eskolaren bertute onenak biltzen ditu.

Hark sortutako maitemindutako morroiaren abestiak, erabilitako teknika paralelistikoaren arabera dantzaren irudi errepikariekin zorretan dago eta bertso jostalariei aukera berezia ematen die. Horretan, bada, Denisen fintasuna orduko poesiaren gailurra izaten da, batzuetan irudien garbitasunagatik eta beste batzuetan "haragikeria" lantzeko moduagatik. Gizonezkoen maitasun-kantuetan, galizierazko bere aurrekoen kontzeptismo obsesiboari aurre egiten dio, poeta proventzalek erakutsitakoaz baliatuz, haietan tokian tokiko herri-oihartzun batzuk atzeman daitezke zehaztapen erakargarriak eskaintzeko. Santillanako markesa zenak ere aintzat hartzen zituen bere *asmakizun sotilak* baita *hitz barregarri eta gozoak* ere.

*Ene loreak, ai pinu berdeko loreak,*

*Ba al dituzue nire lagunaz berriak?*

*Ba al dituzue nire lagunaz berriak?*

*Ai Jainkoa, eta non dago bera?*

*Ene loreak, adar berdeko loreak,*

*Ba al dituzue nire lagunaz berriak?*

*Ai Jainkoa, eta non dago bera?*

*Baldin baduzue nire lagunaren berririk,*

*Biok hitzartutakoaz ez zuen esan egiaz,*

*Ai Jainkoa, eta non dago bera?*

*Baldin baduzue nire lagunaren berririk,*

*Hitza eman zidan eta al zen gezurrik?*

*Ai, eta non dago bera?*

*Zuen lagunaz didazue galdetzen,*

*Eta ni seguru nago dagoela bizitzen.*

*Ai Jainkoa, eta non dago bera?*

*Nire maitez didazue galdetzen,*

*eta nik bizirik dagoela dizuet ziurtatzen.*

*Ai Jainkoa, eta non dago bera?*

*Eta nik osasuntsu dagoela dizuet ziurtatzen*

*eta zuekin egongo dela lehen bait lehen*

*Ai Jainkoa, eta non dago bera?*

*eta nik ondo esaten dizuet dagoela bizirik*

*eta zuekin egongo dela lehen bait lehen*

*Ai Jainkoa, eta non dago bera?*



# Gaztelaniako erromantzea

(XII eta XIII. mendea)

Espainiar erromantzea Europa osoan errotutako poesia-modalitate baten bertsiorik besterik ez da eta, beraz, beste hainbat kulturatan agertzen diren antzeko gaiei heltzen die balada edo kanta narratibo formatan. Gaztelaniaren lehen garaietan, forma desberdinak egon behar izan ziren epika eta lirikaren artean, baina, XIV. mendetik ezagutzen ditugunak maitasun-istorioak eta zor lizunak egoten dira gesta kantatan. Herri estimazio berezia zuten kantuen zati batzuk zaleen oroimenean grabatu ziren, eta bakan batzuk kantatu ziren orduko ikuskizunetan.

Horrela kantatutako zatiekiko gustua hain izan zen handia, ezen, haien irudiak balada gehienetan birmodelatu baitziren. Horrenbestez, *Erromantze zaharrek* (hau da, 1550 baino lehenagokoak) epopeien estilo-ezaugarri asko mantentzen dituzte, zeren eta haietan oinarritzen baitziren eta, bestela, asmakizun berriko narrazioak ere badaude, gertaera historikoen poetika adierazpen-ohiturak agertarazten dituztenak modu deskribatzailean.

Zenbait sekuentzia indartzen dituzte patetismo eta inpresionismo bereziekin, zatikakoa eta eszena bakartuak bultzatzen dituzte, eta egoerei kutsu lirikoa ematen diete. Sendotasun handiagoarekin edo txikiagoarekin, gaztelar hizkuntza komunitate guztien ahozko tradizioan irauten du munduan zehar eta, gaur egun arte bederen, gaztelaniaren poeta handiek ere landu ohi dute erromantzea.

*Gaztelan Gaizki maite naute*

*Nire zain egon behar zutenak*

*Santxa andrearen seme-alabak*

*Mehatxu gaiztoa egin didate*

*Gona moztuko didatelakoan*

*Uzteko ni lotsagarri,*

*Belatzen gizengarri*

*Ene usoak jango dituelakoan*

*Ene neskameak bortxatuko*

*Ezkondugabeak ez ezkontzeko*

*Sukaldari bat hil didate*

*Errukirik gabe hil ere*

*Oso modu lotsagabe,*

*Horra ni dohakabe.*

*On Rodrigok hitz egin zuen*

*esan zuena entzuteko zen:*

*Salesetako infanteez*

*Mendekatuko zaitut erraz*

*Hortako sarea daukat prest*

*ondo zainduko zaituztet*

*egingo diedana egin ondoren*

*kontatu beharko dute hemen.*

# Dante Alighieri

Italia (Florentzia. 1265 - Ravena. 1321)

Inongo Erdi Aroko beste literatura lanak lortu izan du herri desberdinen gogoetan *Komedia* deitutakoak baino gehiago irauterik. Biziraupen horren arrazoia ez dago haren doktrina filosofikoan edo poema kolosal horren diseinuan hura osatzen duten atalen dramatismoan baizik eta hizkuntza-erregistroen ugaritasunean baita idazleak erkaketarako eta formulazio inpresionistentzat duen jenialtasunean ere. Noblezia txikiaren guelfoen alderdikoa, ezkondua eta seme-alabak zituen, Dantek aktiboki hartu zuen parte kanpaina militarretan eta bere jaioterriko administrazioan. 1302an erbesteratuta, Enrike VII.a iritsi zenean (1310), inperio unibertsal baten itxaropenak bertan behera utzi zituen, garaiko auziak amaiaztearekin ahaztu, eta hainbat gortetan funtzio diplomatikoak bete zituen.

*Vita nova* izeneko olerkian forma eta zentzua eman nahi izan zien prosazko pasarteekin lotutako poema labur batzuei. Beatrizekiko maitasun-prozesua kontatzen du hartan, bederatzi urterekin ikusi zuenetik hil zen arte bere amodioa izan zena nahiz eta *donna gentile* baten bidez bizitzan kontsolatzea lortu. *Rime* izenez batzen diren hirurogeita hamar olerki solteak, era berean, adierazpen-gai eta ikerketa prozeduren beste hainbeste saiakera izan ziren baita, azkenean, *Commedia* antolatzeko baliagarriak izan ere.

*Nire gogoetek Amodiori buruz hitz egiten dute;*

*eta elkarren artean hain duten handia barietate,*

*batek bere nagusitasuna deseatzera naramate,*

*eta beste batek bere balioaz kateatzen naute.*

*Baten bat, fidakorra, gozo gordetzen da kausan,*

*beste batek, berriz, negar egiten dit askotan*

*eta errukia eskatzen dute nire bihotzean*

*beldurra izaten duten bakoitzean.*

*Beraz, zein ikasgairi buruz ez dakit nik*

*eta ez dakit hitz egin ere nahi dudarik.*

*Denek nahi badut bateratzea*

*Hobeto gure etsaiari deitzea,*

*Eta erruki andreak ni defendatzea.*

# Francesco Petrarca

Italia (Arezzo, 1304 - Arká, 1374)

Petrarcaren ondorengo Europako lirikaren zati handi bat hura gogora ekartzeko eta, halaber, berau baztertzeko ahalegina izan da batzuetan. Florentziako familia erbestean zegoela, Petrarca Colonna familiaren alboan bizi izan zen lehenik, bai eta Avignongo aita-santuaren giroan ere. Hantxe Klasikoen azterketan eta erromatar ilustratuen latinezko produkzio ikerketan ere lanean aritu zen.

Heldutasunarekin batera, Italian lekua bilatu zuen Visconti eta beste handiki batzuen babespean, eta filosofia moralera bideratu zuen bere egitekoa, *Senideak eta Zahartuak* izeneko bi karta-bilduma handitan argitaratua. Humanismoaren aita, Antzinateko ereduen arabera eraikitako zibilizazio berri batez amesten zuen, gaur egun, ordea, *Canzoniere* edo, zehazkiago, *Rerum oularium fragmenta* izeneko poeta italiarren bildumaren bidez gogoratzen da (hirurehun eta hirurogeita sei olerki, gehienak sonetoak, hogeita bederatzi abesti, bederatzi sei puntuko eta hainbat balada eta madrigal deritzanak).

Liburu bateratu gisa sortua baina narrazio-antolamendu zorrotzik gabe, *Canzoniereak* autorearen ibilbide espirituala aurkezten du, Laura izendatzen duen dama batek bere maitasunaren fase eta alderdi guztietan —bizirik eta hilik—.

Triumphietan, ibilbide bera giza izaeraren esparru orokorrean proiektatu nahi izan zuen. Lirika petrarkarra Proventzako trobadoreak eta *dolce stil nono* deritzenak —Guinizzellitirengandik Danterengana— nobletu egiten ditu, iradokizun klasikoen ekarpen garrantzitsu batekin betiere.

Petrarcaren estiloak, dotorezia artifizial samarrekoa eta musikazaleltasun jakintsua duena, uko egiten die lexiko- eta gramatika-arau ohiko ei baina erreferentzia puntualak ekiditen ditu eldarnio lausoaren alde eta, aldiz, atsegin bihurtzen du hizkuntza- eta erretorika-elementu gutxi batzuen erabilera.

*Ur argi eta gozoak,*

*non beso eta hanka ederrak*

*emakumeak bakarrik dituenak*

*benetan dotoreak diren adarrak,*

*non (gogora dakarkidan hatsak)*

*bere euskarri ederrak*

*nahi dut izan euskarriak*

*loreak eta belarrak*

*soineko barregarriak*

*estaltzen ez zituen bularrak*

*aire sakratu lasaiak,*

*non Maitasunaren begiak*

*izan ziren niretzat zauriak:*

*entzun nire hitz mingarriak.*

*Nire patua izan behar badu*

*eta hortik zeruak zaindu*

*maitea nire begiak ilundu*

*gorputzak aurkituko du*

*zugañ grazia eta ukendu*

*eta bere etxera itzulia arindu.*

*Heriotza ez da hain gogorra izango*

*hala badut itxarongo*

*espiritu tristeak ezingo*

*inoiz ihes egingo*

*ezta bilatu portu lasaiago*

*edo hobi hobeagoan akabo*

*zure haragitik gertu baino.*

# Ausiás March

(Valentzia, 1400 - 1459)

Alfontso Handiaren menpean Mediterraneoan borroka militarretan aritu ondoren, Marchen bizitzaz dakiguna familiako auziei eta jaun feudal txiki baten jardueri buruzkoa besterik ez da. Bai orduko poesia menderatzen zuen Proventzako herentzia berantiarraren aurrean, baita orduko Europako beste idazleekiko erkaturik ere, Marchen lan literarioa originaltasun harrigarrikoa da, maitasunaren, bizitzaren eta heriotzaren ikuskera bati lotua betiere (harentzat oso elkartuta dauden nozioak), sailkapen akademikoei ihes egiten die.

Bere produkzio poetikoaren muin obsesiboa zituen aldarte egoera kontraesankorrak aztertzea izan zen eta, alde horretatik, ezin da eskola-ikasgaien bidez harengan iritsi berau irakurri gabe. Berak maitatzen duen bitartean (eta idazten duen bitartean, bi ekimen bereiztezinak baitira berarentzat), gogoeta egiten du gertatzen zaionari buruz: desioa eta grina eta haien ondorioak, espirituaren parte hartzea, ondorio moralak, maitasun ideala ez lortzean sortutako atsekabea... Askotan, Erdi Aroko literaturan hain agerikoak diren konparazio trinkoen bidez lantzen dira gai horiek, eta, beste batzuetan, abstrakzioraino heltzen dira.

March, batez ere, minaren poeta da. Sentimendu hori adimenez ikertzen du, eta ez du adierazpen hutsalik egin behar, ez formazko lanketa konplexu baten bidez, ez eta bere aurreko hurbilekoen ohiko probentzalean ere, baizik eta katalanaren osagarri den aldaera valentziarrean, bizitza errealeko hizkuntzaz haren poemek kontaktzen dutena bere egia izaten da.

*Ametsetan gozatzen den koroak*

*izaten ditu plazer zoroak,*

*horrela nago ni, iragana hor dagoelako*

*eta nire buruan ez dago lekurik ezertarako,*

*jakinik mina dagoela zelatan*

*eta ni haren haien eskuetan.*

*Ez dut etorkizun onik espero;*

*niretzat ezer ez da hobeago.*

*Iragana neurritz kanpo dut maite,*

*ezer ez maitatzea dut xede,*

*hura joaten egiten denean.*

*horrekin nagoelako ezabatzean.*



# Francois Villon

(Paris, 1431tik 1463ra)

Adituek bere ustezko bizitza zalantzan jartzera gonbidatzen dute. Ikerlari moderno batek baino gehiagok ez du onartzen *Francois Villon* hezur-haragizko gizona zenik ezagutzen diren hainbat idazlanen egilea izateaz gain, eta literatura-pertsonaia bat besterik ez dela diote, izen gaizto baten benetako irudian oinarritua. Hala ere, aski fidagarriak dira *Francois de Montcorvier, autrement dit Villon* Sorbonan bere unibertsitate-titulua lortu zuen klerigo baten semea izan zela dioten datuak.

Ildo horretatik, badirudi bohemiarekin eta Parisko delinkuentziarekin zituen harremanek justiziaren eskura eraman zutela eta bi aldiz heriotza-zigorra ezarri ziotela. Bigarren aldian, Parisetik erbesteratu, eta hamar urteko zigorraz trukatu ondoren, desagertu egin zen. Bere idatzietan ironiaren eta errealismoaren batura erakusten du, bere maisulanean, Testamentua (1461), gailentzen dena. Kutsu ziniko franko tonuak, hizkuntzaren zehaztasunak, aipu eruditoak eta literatura-oihartzun ospetsuak oso kategoria handiko gaietan aplikatzeak fisionomia nahastezina ematen diote Villonen poesiari.

## TESTAMENTUA

*Sentitzen dut nire gaztaroko denbora*

*(inoiz baino gehiago joan bainintzen dibertsiora*

*baita geroago iritsita helduarora),*

*eta ez zihoan denbora-joan hori gogora.*

*Ez da joan, urratsez urrats, oinez ibilitakoa*

*ezta zaldiz ere. Nola zen denbora joandakoa?*

*Bat-batean joan zen, hegaldi azkarrekoa,*

*eta onurarik ez dit utzi, inolakoa ...*

*bere garaian nik ikasi banu, ai, Jainkoa,*

*gaztaroa bizi beharrean, ondo ikasitakoa!*

*izango nuke egun, bada, biguna nire etxekoa.*

*Eskola gorroto nuen, zertarako negar egin?*

*beti bezala, beteginik haur gaiztoekin.*

*Eta orain idazten dudanean testamentua*

*hartzen dut nire oroitzapenen pentsamendua...*

# Jorge Manrique

(1440 - 1479)

XV. mendeko kronikak Jorge Manrique *On Rodrigo maisuaren semea* zela esan ohi da, eta aipamena ezin da zehatzagoa izan. Laratarren leinukoa, beraz, Gaztelako nobleziako ospetsuenetako baten kidea, Santiagoko zalduna izan zen eta bere aitaren jitei jarraitu zien, Ordenuko maisua Isabel printzesaren bandokoak babestuz eta ekintza militar ugaritan parte hartuz hazi zen. Ekintza horietako batean, ordea, Garcimuñozeko gazteluko erasoan hain zuzen ere, hil egin zuten.

Idazle gisa, aristokrata bati dagokion poesia konposatu zuen, baina ospea *Aitaren heriotzaren ondorengo* kopia direnak eskuratu zuen (1476). Agian, poemaren lerro bakar bat ere ezin da jatorrizkotzat har: gaiak, ideiak, teknikak oso tradizio luzea dute Erdi Aroko espiritualtasunean. Baina Koplek naturaltasun baten erritmoan esaten dute dena, non heriotza bera ere eder bihurtzen baita, *On Rodrigok* aurre egiten dion duintasun eta gogo-aldarteagatik.

*Lotan dagoen arima,*

*heldu eta esnatu,*

*begiesteko*

*igarotzen den bizitza*

*hiltzerako*

*nola doazen isilik;*

*ze agudo doan plazera,*

*eta gogoratzean,*

*ematen duen minik*

*nola, gure ustez*

*iraganeko denbora*

*hobea izan zen, zinez.*

*Eta, beraz, orainaldia*

*ziztu bizian joandakoa*

*eta amaitutakoa*

*zentzuz epaituz gero,*

*emango dugu egunero*

*iraganakoa.*

# Milia Lasturkoren eresia

(Anonimoa)

Milia Lasturko hileta-kanta Erdi Arokoa da, eta Esteban Garibaikoaren memorietan jaso eta argitaratua izan zen.

Erdi Aroko hileta-kantak aristokrazia gerlariaren fruitu izan ohi ziren. Tradiziozko kantuak dira, baina haietatik gutxi izan dira guregana heldu direnak, salaketak eta kritikak baitzituzten, eta Elizak eta botere zibilek debekatu egin zituzten askotan. Kantariak emakumeak ziren beti, eta, kasu honetan, hildakoaren ahizpak, ustez, inprobisatutako lau ahapaldi dira.

*Zer ete da andra erdiaren zauria?*

*Sagar errea, eta ardao gorria.*

*Alabaia, kontrarion da Milia:*

*Azpian lur hotza gainean harria.*

*Lasturrera behar dozu, Milia.*

*Aita jaunak eresten dau elia,*

*Ama andreak apainketan hobia.*

*Hara behar dozu, Milia.*

*Hara behar dozu, Milia.*

*Jausi da zerurean harria,*

*Aurkitu dau Lasturren dorre barria,*

*Edegi dio almeneari erdia.*

## Errodrigo Zaratokoaren eresia

Errodrigo Zaratokoaren kantua balada bat da. Ziur aski ahozko tradiziotik zetorren balada hori Iburguen-Cachopin deitutako kronikan jaso zen (1570 - 1620). Kronika horrek 1448 eta 1468 artean kokatzen du egiletza, eta garai hartan bizi izan zen Errodrigo Zaratokoaren heriotzak kontatzen ditu bertsotan.

*Arma escuduac on dira dardos,*

*pareric estabe canporacos,*

*çatearrac galdu ei dabe Marquia-Çuya çeculaco.*

*Errodrigo Çarateco, selan engana sindean*

*jaun Juane Abendañocogas gudua ar çensanean,*

*bi milla guiçon oi ditus bere lelengo deiean,*

*lau milla bere baleduque premia letorreanean,*

*Cortaçarretarrac delantere, Iburguendarrac urrean,*

*Gastelan Sarmientuarric asco, es pareric arean,*

*jaun Asençio Guebaraco ganean darda ordean,*

*Billela ta Arteaga, anage onac urrean,*

*saldi suriac ondorenean,*

*onac arin, gogoa sendo, arerioaen asean.*

## Martin Bañezen eresia (1464)

Oso ezaguna den Iburguen-Cachopin kronikatik aterea da Butroeko andrearen kanta. Bertan Erdi Aroko bizimoduaren berri ematen da baita bertoko eta orduko poesiaren notizia ere.

Adibide gisa hona hemen Sancha Otsoa Ozaetak Martin Bañez Artazubiagari, bere senarrari, jarritako kanta dago:

*Oinetako lurrau jabilt ikara  
lau haragiok bere an berehala  
Martin Bañes Ibarretan hil dala.*

*Artuko dot esku batean gezia  
bestean zuzi iraxegia,  
erreko dot Aramaio guztia.*

## Arrasateko erreketeta (1456)

Arrasateko Erreketaren Eresian, nonbait, sumi(tu/ du) aditz-erroa, orain arte esanahi ilunekoa zen baina, Jorge Etxague adituak dioenez, gaztelaniazko *sumir(se)* aditzaren mailegua omen da, Erdi Aroko moduan azaldua, eta honek ematen dio testu poetiko zail horri beste esanahi berezia non, zenbait hegoaldeko lurralde euskaldunen izenak borrokan agertzen zaizkigun:

*Gal dadila Unzueta ta Bergara,*

*Zaldibarrek bere parte debala,*

*Aramaio suak erre hazala*

*Guraiarra jaunak sumi zala,*

*Zuengaiti hil da ene zaldun zana...*

*Gomizek asko lagunik,*

*Zabal arabarrik,*

*Giputz ondo ederrik,*

*Bizkaitar urduri gogorrik.*

*Ez diatzo bakarrik,*

*Ze han daz Presebal hilik,*

*Juanikotegaz lagundurik,*

*Txibulen ospe bagerik,*

*Ez urrun Malogenik...*



# Igorren gerra

(XII. mendekoa)

1795ean aurkitu zuten Errusian eskuizkribu zahar batean idatzia olerki hau edo, hobeto esanda, epopeiaren zati hau, eta Puxkin poeta ezagunak argitaratu zuen ustez XII. mendeko den dokumentu hau. Halaber ezezaguna den egile errusiar batek herri-hizkuntzan idatzitako ekoizpen gisa aurkezturik eta, berez, hango errusiar literaturaren monumenturik zaharrentzat hartua izan dena.

Antzinako konposizio hauxe kontu handiz aztertzeko modukoa da. Autoreak antzinako eslaviar idazleen ezaugarri poetiko guztiak adierazten dituen sentimenduetan aurkitzen dugu: sentiberatasun inuzente bat, naturaren alde misteriosuaren benerezio sakona eta, batez ere, kristautasunak orduan moderatu ez zuen grina aberkoia.

Beste lekukotasunik ezean, mirariz kontserbatutako eta guregana iritsitako literatura-pasarte horiek nahikoa lirateke XII. mendean errusiarrek uste baino joera basati gutxiago zutela frogatzeko. Haren historia goraiatu egiten diren gertaera onartezinetan aurkitzen da daukan poesiaren xalotasuna.

*ANAIAK, ez al da bidezkoa Igorrek Sviatosdosen semeari egindako espedizioaren kontakizuna hizkuntza zaharrea hastea?*

*Kantua, beraz, tradizioen arabera has dadila, eta ez Boianen ohituraren arabera?*

*Boian bardoak, kantu gerlaria osatzen zuenean, bere pentsamenduak basoetan zehar hegan egiten uzten zuen, lautadaren erdian bizi zen otsoa bezala, zeruan arrano urdina nola.*

*Iraganeko gerraren batekin egiten duzu amets? Beltzargeen tropa baten aurka hamar gezi jaurtitzen zituen, eta hartutako lehenak hasierako garaipen-kantua kantatzen zuen, bai Iaroslav zaharrari buruz baita Mistislaw ausartaz ere, Kazoskes tropen aurrean Redediaren jarreraz, bai eta Sviatoslavitch istorio ederraren gainean.*

# Bandadrapa

XI. mendearen hasierako idazle bikingoa izan zen Eyjuventáld (gertaeren poeta haietako bat). Bandadrapa izeneko olerki sorta idatzi zuen, bere egiletza duen poema ezagun bakarra, eta zortzi ahapaldi eta esaera zaharren bat ere gorde dira berak sortutakoak. Bandadrapako zati ezagunek Eirík erregearen lehen gertaerak kontatzen dituzte: Skoptiren heriotza, Baltikoan egindako erasoak eta abar... Olerkia aztertuz gero, ziurrenik poema askoz zabalagoa izango zen, Svolderreko batailan izandako parte-hartzea eta ondorengo beste gertaera batzuk barne 1100. urtearen inguruan konposatu zituela ematen du.

*Meita hara joan zen,*

*oso berandu iluntzean,*

*gizon gazte batekin*

*urrats sendo batekin,*

*armadaren frontera,*

*eta odol erori zitzaion.*

*Hodsveigirek erortzen utzi zuen*

*eta kolpe bizi*

*bezain gogor batez*

*lurra eta harea*

*lurreratu zuen*

*bere ondoan.*

## Arturo erregearen kondaira

Cattraetheko borrokari buruzko poema bat da, *Aneirin* Liburuan dago eta seigarren mendeko Aneirin bardoari egozten zaio. Poemak Cymryren Gododdingo biztanleen eta Saxoien arteko borroka kontatzen du (600. urtearen inguruan), eta gaelikoz idatzita dago.

Gaur egun uste da eskuizkribua bi idazlek egin zutela, A eta B izenekoak. Ak 88 poema ahapaldi idatzi zituen, antzinako gaelikoz. B idazleak 35 ahapaldi gehitu zituen. Horietako batzuk A ahapaldien aldaerak dira, eta beste batzuk, ordea, erabat berriak.

*Helduaroan, baina urtetan gaztea,*

*gerraren indarraren artean galantea,*

*Zaldi azkar indartsuek*

*heroi egiten zintuzten;*

*Ezkutu zabal eta arinaz*

*Besteen zaldi saiheitsak txikitzen zituen;*

*Haren ezpata urdin distiratsuak,*

*Urrezko ezproiak eta artilezko arropak zituen.*

*Ez da nire eginkizuna zuri ezer aurpegiratzea,*

*Beraz, nahiago laudorioak kantatzea;*

*Mahai odoltsu batean etzatea,*

*eztei-oturuntzan bezala ezartzea*

*Beleak zugandik elikatzeko egotea*

*Hori al da ezkontza-saria eskuratzea...*

Liburu honen audio-bertsioa helbide honetan entzun daiteke:

<https://www.booktegi.eus/audioak/poesiaren-xendrak-europan-barna/>



Fito Rodriguez



Olatz Beobide



Inazio Tolosa



Esti Curiel



Patxi Santamaria